

3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duena

LEHENENGO LIBURUA

Sektore publikoko kontratazioaren konfigurazio orokorra eta kontratuen egiturazko elementuak

I. TITULUA

Sektore publikoko kontratuei buruzko xedapen orokorrak

(...)

V. KAPITULUA

Baliogabetasun-araubidea

(...)

2. atala. Deuseztasun-kasu bereziak

37. artikulua. *Kontratu-deuseztasuneko kasu bereziak.*

1. Ondorengo kasu hauetan, deusezak izango dira lege honen 13. etik 17. era bitarteko artikuluek (biak barne) aipatutako erregulazio harmonizatuko kontratuak eta II. eranskineko 17tik 27ra bitarteko kategorietan dauden eta 193. 000 euroko edo gehiagoko balio zenbatetsia duten kontratuak:

a) Kontratua esleitu bada lizitazio-iragarkia aldez aurretik Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratzeko eskakizuna bete gabe, 142. artikulua araberago aginduzkoa izanik.

b) 156. 3 artikuluan kontratua formalizatzeko aurreikusitako hamabost egun balioduneko epea bete ez bada; betiere, bi baldintza hauek betetzen badira:

1. Kausa horrengatik lizitatzailerak 40. artikuluan eta hurrengoetan araututako errekurtsioa aurkezteko aukerarik gabe gelditu izana, eta,

2. gainera, kontratuak esleitzeko prozedura arautzen duen arauen bat urratu izana, eta horrek esleipena lortzea eragotzi izana.

c) Kontratua formalizatu egin bada lege honen 40. artikulua eta hurrengoek aipatzen duten kontratazio-arloko errekurtsio berezia jarri arren, kontuan hartu gabe esleipen-egintzaren etete automatikoa –etetea dagokion kasuetan– eta itxoin gabe organo independenteak errekurritutako egintzaren eteteari eutsi edo ez erabakitzeke ebazpena eman arte.

d) Hainbat enpresabururekin 196. artikuluko esparru-akordio batean oinarrituta egindako kontratua bada eta bere balio zenbatetsia aintzat hartuta erregulazio harmonizatukotzat jo behar bada, eta 198. 4 artikulua bigarren lerrokadan ezarritako esleipen-arauak bete ez badira.

e) Hainbat enpresaburu onartuta dauden kontratazio-sistema dinamiko batean oinarritutako kontratu espezifikoaren esleipena bada, betiere esleitu beharreko kontratua erregulazio harmonizatukoa bada eta 202. artikuluan kontratu horiek esleitzeari buruz ezarritako arauak bete ez badira.

2. Hala eta guztiz ere, artikuluko honetako aurreko paragrafoaren a) hizkian aipatzen den deuseztasun-adierazpenik ez da emango, ondorengo hiru egoera hauek batera gertatuz gero:

a) Kontratazio-organoaren irizpidearekin bat etorriz, lizitazio-iragarkia Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratzeko salbuespenen artean –lege honetan daude ezarrita– jasota egotea kontratua.

b) Kontratazio-organoak alde aurreko borondatezko gardentasunari buruzko iragarkia argitaratzea Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean, kontratua egiteko asmoa duela adieraziz, eta hau guztia jasoz:

- Kontratazio-organoaren identifikazioa.
- Kontratuaren xedearen deskribapena.
- Kontratua 142. artikuluko argitaratzeko eskakizuna bete gabe esleitzeko erabakiaren justifikazioa.
- Kontratuaren esleipendunaren identifikazioa.
- Kontratazio-organoari garrantzitsua iruditzen zaion beste edozein informazio.

c) Kontratua ez burutzea iragarki hori argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita hamar egun baliodun igaro arte.

3. Artikuluko honek d) eta e) hizkietan aipatutako deuseztasun-adierazpenik ez da emango, ondorengo bi baldintza hauek batera betez gero:

a) Kontratazio-organoak kontratua esleitu duela jakinaraztea eragindako lizitazzaile guztiei, eta, hala eskatzen badiote, haien hautagaitza edo proposamena baztertzeko arrazoiak azaltzea, bai eta esleipendunaren proposamenaren alde egiteko erabakigarriak izan diren ezaugarriak ere, hargatik eragotzi gabe 153. artikuluan jakinarazi ezin diren datuei buruz xedatutakoa.

b) Kontratua ez burutzea jakinarazpena eragindako lizitazzaileei igorri eta hurrengo egunetik hasita hamabost egun baliodun igaro arte.

38. artikulua. *Deuseztasun-adierazpenaren ondorio juridikoak aurreko artikuluko kasuetan.*

1. Aurreko artikuluan aurreikusitako kausetan oinarritutako deuseztasun-adierazpenak lege honen 35. 1 artikuluan ezarritako ondorioak izango ditu.

2. *Edonola ere, deuseztasuna adierazteko eskumena duen organoak aukera izango du deuseztasuna ez adierazteko eta kontratuaren ondorioei eustea erabakitzeko, baldin eta, salbuespenezko egoera aintzat hartuta, erabaki horren alde egiteko interes orokorreko arrazoi premiazkoak badirela irizten badio.*

Interes ekonomikoak paragrafo honen lehen lerrokadan aipatutako premiazko arrazoi direla salbuespeneko kasuetan baizik ez da joko, hain zuzen ere kontratuaren deuseztasun-adierazpenak neurriz kanpoko ondorioak ekarriko dituenen.

Ez dira interes orokorreko arrazoi premiazkozat joko aipatutako kontratuari zuzenean lotutako interes ekonomikoak; besteak beste, honako hauek eragindako kostuak: kontratua gauzaten atzeratzeak eragindako kostuak, kontratazio-prozedura berri baterako deialdiaren kostuak, kontratua gauzatu beharko duen eragile ekonomikoa aldatzearen kostuak edota deuseztasunaren ondoriozko betebeharrak juridikoek eragindako kostuak.

Kontratuaren ondorioei eustea erabakitzen duen ebazpena lege honen 53. artikuluan aurreikusitako kontratatzaile-profilean argitaratu beharko da.

3. Aurreko paragrafoan aurreikusitako kasuan, deuseztasun-adierazpena beharrez, ordezkotzako zehapen hauetakoren bat ezarri beharko da:

a) Botere esleitzailari isunak jartzea, kontratua esleitzeko prezioaren 100eko 5 gutxienez, eta gehienez 100eko 20.

Botere esleitzailen kontratazioa hainbat kontratazio-organoren bitartez egiten denean, kontratua esleitu duen departamentu, sail edo organoaren aurrekontuaren gain ezarriko da ordezkotzako zehapena.

Ezarri beharreko isunaren zenbatekoa erabakitzekoan, organo eskudunak alderdi hauek hartuko ditu kontuan, isunak eraginkorrak, proportzionalak eta eragozleak izan daitezkeen: errepikapena, kontratuaren zer ehuneko gauzatu den, edo interes publikoei edo, hala dagokionean, lizitatzailari zer kalte sortu zaion.

b) Kontratuaren iraupenaren murrizketa proportzionala.

Kasu honetan, organo eskudunak alderdi hauek hartuko ditu kontuan: errepikapena, kontratuaren zer ehuneko gauzatu den, edo interes publikoei edo, hala dagokionean, lizitatzailari zer kalte sortu zaion.

Halaber, kontratistari dagokion kalte-ordaina zehaztuko du, kontratuaren iraupena murriztearen ondorioz lortuko ez dituen irabaziengatik, betiere ordezkotzako zehapena eragin duen arau-haustea kontratistari leporatzerik ez badago.

4. Aurreko paragrafo guztietan xedatutakoak ez du eragotziko legezko arau-hausteen arduradunari diziplina-zehapenak ezartzea, hala badagokio.

39. artikulua. Deuseztasun-arazoa.

1. Deuseztasun-arazoa, 37. 1 artikulua aipatutako kasuetan, 41. artikuluan aurreikusitako organoaren aurrean aurkeztu beharko da, eta bera izango da prozedura izapidetu eta ebazpena emateko eskuduna.

2. Kasu horietan, pertsona fisiko edo juridiko orok aurkez dezake deuseztasun-arazoa, betiere 37. artikuluan jasotako deuseztasun-kasuetan kaltetu egin badira edo kaltetu egin badaitezke haien eskubide edo interes legitimoak. Dena den, organo eskudunak aukeran du deuseztasun-arazoa ez onartzea baldin eta interesdunak, egintza berari dagokionez, 40. artikuluan eta hurrengoetan araututako errekurtsio berezia jarri badu, eta kontratazio-organoak errespetatu egin baditu aurkatutako egintzaren etetea eta emandako ebazpena.

3. Deuseztasun-arazoa aurkezteko epea hogeita hamar egun baliodunekoa da, honako hauetatik kontatzen hasita:

a) Kontratuaren esleipena 154. 2 artikuluan aurreikusitako moduan argitaratzen denetik, lizitazioa Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean ez argitaratzeko arrazoiak barne hartuta,

b) edo eragindako lizitazailerei beren hautagaitza edo proposamena baztertzeko eta esleipendunaren proposamenaren alde egiteko erabakigarriak izan diren ezaugarriak jakinarazten zaizkientetik, alde batera utzi gabe 153. artikuluan jakinarazi ezin diren datuei buruz xedatutakoa.

4. Aurreko paragrafoan aurreikusitako kasuetatik kanpo, deuseztasun-arazoa sei hilabete igaro baino lehenago aurkeztu beharko da, kontratua formalizatzen denetik kontatzen hasita.

5. Deuseztasun-arazoa 44. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera izapidetuko da, ondoko salbuespen hauekin:

a) Lege honen 44. 1 artikuluan xedatutakoa ez da aplikatuko, errekurtsioa ipini izana iragartzeko eskakizunari dagokionez.

b) Deuseztasun-arazoa aurkezteak ez du, berez, inolako eteterik eragingo.

c) Kontratazio-organoak kautelazko neurrien eskaerari dagokionez alegazioak aurkezteko epea –43. 2 artikulua bigarren lerrokadan eta 46. 3 artikuluan ezarritakoa–, zazpi egun baliodun artekoa izango da.

d) kontratazio-organoak espedientearen dagokion txostenarekin batera igortzeko epea –46. 2 artikuluan ezarritakoa–, zazpi egun baliodun artekoa izango da.

e) Deuseztasun-arazoa ebazteko eskumena duen organoak, ebazpena ematean, ordezko zehapenak jartzearen egokitasunaz ere ebatzi beharko du, baldin eta kontratazio-organoak hala eskatu badu administrazio-espedientearekin batera igorri beharreko txostenean.

f) Kontratazio-organoak ez badu aurreko hizkian ezarritako moduan eskatu, ebazpena betearazteko izapidean eskatu ahal izango du.

Horrela eginez gero, organo eskudunak, prozeduran parte hartzen duten alderdiei bost eguneko entzunaldia eman ondoren, entzunaldiaren epe hori bukatu osteko bost eguneko epearen barruan ebatziko du eskatutako ordezko zehapena aplikatzearen egokitasunaz.

Ebazpen horren aurka, errekurtsioa aurkeztu ahal izango da, funtsari buruzko ebazpenetarako aurreikusitako modu berean.

VI. KAPITULUA

Kontratazio-arloko erabakiak berrikusteko araubide berezia eta gatazkak konpontzeko ordezkoko baliabideak

40. artikulua. *Kontratazio-arloko errekurtsio berezia: zein egintzaren aurka jar daitekeen.*

1. Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jarri baino lehen, kontratazio-arloko errekurtsio berezia jarri ahal izango da artikuluko honen 2. paragrafoan adierazitako egintzen aurka, baldin eta herri-administrazioek eta botere esleitzzailearen izaera duten erakundeek egin nahi dituzten hurrengo kontratu mota hauei badagozkie:

a) Obra-kontratuak, herri-lanen kontzesioko kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzakontratuak eta esparru-kontratuak, erregulazio harmonizatukoak badira.

b) Lege honen II. eranskinen 17. kategoriatik 27. era artekoetan sartzen diren zerbitzu-kontratuak, horien balio zenbatetsia 193. 000 euro edo gehiago denean.

c) Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuak, hastapen-gastuak, balio erantsiaren gaineko zergaren zenbatekoa kenduta, 500. 000 eurotik gorakoak badira eta iraupen-epea bost urtetik gorakoa bada.

Diruz lagundutako kontratuen aurka ere –17. artikuluan aipatzen dira– ezar daiteke errekurtsio hau.

2. Honako egintza hauen kontra jar daiteke errekurtsioa:

a) Lizitazio-iragarkiak, pleguak eta kontratazioa arautu behar duten baldintzak ezartzen dituzten kontratu-agiriak.

b) Esleipen-prozeduran onartutako izapide-egintzak, baldin eta izapide horiek, zuzenean edo zeharka, esleipenari buruz erabakitzen badute, prozedurak aurrera jarraitzea eragozten badute, edo defentsa-gabezia edo eskubide eta interes bidezkoetan kalte konponezina sortzen badute.

Prozedurak aurrera jarraitzea eragozten duten izapide-egintzat joko dira kontratazio-mahaiaren egintzak, lizitatuak baztertzeko erabakitzen dutenean.

c) Botere esleitzzaileek onartutako esleipen-erabakiak.

Hala ere, ezin izango da kontratazio-arloko errekurtsio berezia jarri pleguetan aurreikusitako gabeko kontratu-aldaketak egiteko kontratazio-organismoek emandako egintzen aurka, baldin eta, aldaketa horiek, 105.etik 107. era bitarteko artikuluen arabera, kontratuak esleitu ondoren egin beharrekoak badira, egintzon bitartez suntsiarazpena eta lizitazio berria egitea erabaki edo ez.

3. Bigarren paragrafoan aipatutako egintzez bestelakoei eragiten dieten izapidetze-akatsak espedientearen instrukzioaren ardura duen organoari edo kontratazio-organismoari jakinarazi ahal

dizkiote interesdunek, zuzenduak izan daitezen. Nolanahi ere, interesdunek aukera izango dute eragiten dieten irregulartasunak alegatzeko, esleipenari dagokion egintza errekurrizkeko unean.

4. Lege honetako 113. artikuluan arautzen den larrialdiko izapidetzeari jarraituz egiten diren esleipen-prozeduretan ez da errekurtso hau erabiliko.

5. Artikulu honetan zehaztutako egintzen aurka ezingo da administrazio-errekurtsorik aurkeztu, hurrengo artikuluan autonomia-erkidegoei buruz aurreikusitakoa salbu.

Administrazio-kontratuak esleitzeko prozeduretan emandako egintzen aurka, 1. paragrafoan jasotako baldintzak betetzen ez dituztenean, errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

6. Artikulu honetan eta hurrengoetan araututako errekurtso berezia aukerakoa izango da.

41. artikulua. *Errekurtsoa ebazteko eskumena duen organoa.*

1. Estatuko Administrazio Orokorraren esparruan, aurreko artikuluan zehaztutako errekurtsoak aztertzeke eta ebazteke eskumena organo espezializatu batek izango du, eta erabateko askatasun funtzionala izango du bere eskumenak gauzatzean.

Auzitegi horrek aztertuko ditu, halaber, aurreko artikuluekin bat etorritz Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko, Konstituzio Auzitegiko eta Kontuen Auzitegiko organo eskudunen egintzen aurka aurkeztutako errekurtso bereziak.

Horretarako, bada, Kontratu Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Zentrala sortzen da. Ekonomia eta Ogasun Ministerioari atxikita egongo da, eta presidente batek eta bi kidek gutxienez osatuko dute.

Aukeran izango da erregelamendu bidez auzitegia osatuko duten kideen kopurua handitzea, aurkeztutako auzien bolumena dela eta egokia denean kide gehiago izatea.

Lizentziadun edo graduatu titulua behar duten kidego eta eskalatako karrerako funtzionarioak auzitegi honetako kide izendatu ahal izango dira, baldin eta hamabost urte baino gehiagoko jarduera profesionala badute, eta kontratazio publikoarekin zuzenean lotutako administrazio-zuzenbidearen arloan aritutakoak lehenetsiz.

Auzitegiko presidentek karrerako funtzionarioa izan beharko du, zuzenbidean lizentziatua edo graduatua izatea eta lan jarduera horretan hamabost urte baino gehiagoan aritu izana eskatzen duen kidego edo maila batekoa, eta kontratazio publikoarekin zuzenki lotutako administrazio-zuzenbidearen arlokoa lehenetsiko da.

Kideak edo presidentea Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko apirilaren 12ko 7/2007 Legearen aplikazio-esparruan sartzen diren karrerako funtzionarioen artean

izendatzen badira, aipatutako legearen 76. artikuluko A1 azpitaldean sailkatutako kidego edo mailatakoak izan beharko dute.

Auzitegi honetako presidentea eta kideak Ministroen Kontseiluak izendatuko ditu, Ekonomia eta Ogasun ministroak eta Justizia ministroak batera aurkeztutako proposamenean oinarrituta.

Izendatutakoak independenteak eta mugiezinak izango dira, eta ezin izango dira lanpostutik bota, ondorengo kausa hauetako batengatik ez bada:

- a) Agintaldia iraungitzeagatik.
- b) Uko egiteagatik eta Gobernuak uko hori onesteagatik.
- c) Espainiako nazionalitatea galtzeagatik.
- d) Betebeharrak modu larrian bete gabe uzteagatik.
- e) Delitu bat dela medio, askatasunaz gabetzen duen zigor bat jasotzeagatik, edota enplegu edo kargu publikoa betetzeko erabateko desgaiakuntza edo desgaiakuntza berezia ezartzen duena.
- f) Eginkizunak gauzatzeko gerora sortutako ezgaitasunagatik.

Gobernuak erabakiko du c), d), e) eta f) hizkietan aurreikusitako kausetan oinarrituta kargugabetzea, espediente egin ondoren.

Paragrafo honi jarraiki egindako izendapenen iraupena sei urtekoa izango da, eta ezin izango dira luzatu.

Edonola ere, Auzitegiaren lehenengo berritzea partezkoa izango da eta izendapenetik hiru urtera egingo da.

Hala, adierazitako epea bete baino lehen, zozketa bidez erabakiko da zein kidek utzi beharko duten kargua.

Dena den, kide batek kargua uzten duenean, bere eginkizunak betetzen jarraituko du, haren ordezkioak kargua hartu arte.

Auzitegiaren eraketa- eta funtzionamendu-araubideari dagokionez, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen xedapenak aplikatuko dira.

2. Gorte Nagusietako organo eskudunek finkatuko dute, beren kontratazio-esparruari dagokionez, kapitulu honetan araututako errekurso bereziaz zer organo arduratuko den; betiere, errespetatu egin beharko dira artikuluko honetan aurreikusitako kualifikazio-, independentzia- eta mugiezintasun-baldintzak.

3. Hala autonomia-erkidegoen esparruan, nola erkidego horietako legebiltzarretako organo eskudunen eta Kontu Auzitegiaren eta Herriaren Defendatzailearen kideko erakunde autonomikoen esparruetan, dagozkien arauen bitartez zehaztuko da errekursoak ebazteko eskumena. Horretarako, organo independente bat sortu beharko da, eta titularrak –edo, kide

anitzekoa izanez gero, gutxienez presidenteak– kualifikazio juridiko eta profesional egokiak izango ditu, bere ardurapean geratuko diren gaiak behar bezala ezagutzen dituela bermatzeko.

Organo edo erakunde independente honetako kideak izendatzean eta beren agintaldia amaitzean, haien independentzia eta mugiezintasuna bermatuko dituzten baldintzak bete beharko dira; haiek izendatzeko ardura duen agintaritzari, agintaldiaren iraupenari, eta kargutik kentzeari dagozkio baldintza horiek.

Autonomia-erkidegoek aukera izango dute 40. artikuluan aurreikusitako errekurtsua baino lehen administrazio-errekurtsua jartzeko bidea emateko.

Azken kasu horretan, aurkaratutako esleipen-egintzen betearazpena etenda geratuko da, ebazteko eskumena duen organoak arazoaren funtsari buruzko erabaki bat hartzen duen arte.

Ebazpena erabat baiaslea ez bada, etete horrek indarrean jarraituko du, 45. artikuluan aurreikusitako moduan.

Autonomia-erkidegoek, era berean, artikuluko 1. paragrafoari jarraiki sortutako auzitegi bereziari esleitu ahal izango diote errekurtsuak ebazteko eskumena.

Horretarako, hitzarmen bat sinatu beharko dute Estatuko Administrazio Orokorrekin, eta bertan, zehaztu beharko dute zer baldintzatan ordainduko dituen autonomia-erkidegoak eskumenak bereganatzearen ondorioz sortutako gastuak.

Ceuta eta Melilla hiriek organo independente propioak izendatu ahal izango dituzte, paragrafo honetan autonomia-erkidegoetako organoetarako finkatutako betebeharrekin bat etorrira, edota eskumena Kontratu Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Zentralari esleitu, aurreko lerrokan aurreikusitako moduko hitzarmen bat eginda.

4. Toki-erakundearen esparruan, errekurtsuak ebazteko eskumena dagokien autonomia-erkidegoko araei jarraiki finkatuko da, autonomia-erkidego horiek beren esku daukatenean toki-araubidearen eta kontratazioaren arloetan arauak egiteko eta betearazteko eskumena.

Legedia autonomikoan berriazko aurreikuspenik ez badago, toki-erakundea dagoen lurraldeko autonomia-erkidegoak bere esparruko errekurtsuak ebazteko eskudun izendatu duen organo bera izango da eskuduna.

5. Errekurtsuak herri-administrazioetat jotzen ez diren botere esleitzailen egintzen aurka jarri direnean, aurkaratutako egintza sortu duen erakundearekin lotutako administrazioaren kasuan eskumen hori daukan organo independentea izango da eskuduna.

Erakunde kontratatzailea administrazio batekin baino gehiagorekin lotuta baldin badago, kontrola edo parte-hartze handiena daukan erakundearen kasuan eskuduna den organoak izango du errekurtsua ebazteko eskumena, eta erakunde guztiek edo batzuek parte-hartze berdina baldin badaukate, paragrafo honetako araei jarraiki organo eskudun direnen artean errekurtsogileak aukeratzen duenak.

6. Lege honen 40. 1 artikuluko azken tartekian aipatzen diren diruz lagundutako kontratuen kasuan, diru-laguntza eman duen ente edo organismoa atxikita dagoen administrazioaren kasuan bere funtzioak betetzen dituen organo independentea izango da eskuduna, edo, diru-laguntza eman duen erakundea herri-administrazioa ez bada, erakunde hori atxikita dagoen organoa.

Sektore publikoko zenbait subjekturen diru-laguntzak batera jasotzen badira, diru-laguntza handiena eman duena izango da eskuduna, eta diru-laguntza guztien zenbatekoa berdina bada, paragrafo honetako arauen arabera eskudun diren organoen artean errekurtsogileak errekurtsua jartzeko aukeratzen duena.

42. artikulua. *Legitimazioa.*

Errekurtsoren xede diren erabakiek kaltetu dituzten edo kalte ditzaketen eskubide edo interes legitimoen jabe diren pertsona fisiko edo juridiko guztiek jar dezakete kontratazio-arloko errekurtsu berezia.

43. artikulua. *Behin-behineko neurriak eskatzea.*

1. Kapitulu honetan araututako errekurtsu berezia jarri baino lehen, aurreko artikuluan adierazitakoaren arabera horretarako legitimazioa daukaten pertsona fisiko eta juridikoek behin-behineko neurriak ezartzeko eskatu ahal izango diote errekurtsua ebazteko eskumena daukan organoari.

Neurri horiek prozedurako arau-hausteak zuzentzera edo eragindako interesen gainean beste kalte batzuk sortzea saihestera bideratuko dira. Neurri horien artean, kontratuaren esleipen-prozedura eteteko edo etenarazteko neurriak sartu ahal izango dira, edota kontratazio-organoen edozein erabaki betearaztea bertan behera uzteko neurriak.

2. Errekurtsua ebazteko eskumena duen organoak behin-behineko neurrien inguruko erabaki arrazoitua hartu beharko du, neurri horiek eskatzeko idazkia aurkeztu eta bost egun balioduneko epearen barruan.

Horretarako, organo erabakitzailleak, behin-behineko neurria ezartzeko eskaria jasotzen duen egunean bertan, horren berri emango dio kontratazio-organoari, eta azken horrek bi egun balioduneko epea izango du eskatutako neurriak ezartzeari buruz edo erabaki-organoak berak proposatutako neurriari buruz egokitzen jotzen dituen alegazioak aurkezteko.

Epe horretan alegaziorik aurkeztu ez badu, prozedurak aurrera jarraituko du.

Ebazpena eman aurretik errekurtsua jarri baldin bada, organo erabakitzailleak behin-behineko neurrien eskaera eta errekurtsua metatuko ditu, eta 46. artikuluan aurreikusitako moduan hartuko du horien gaineko erabakia.

Prozedura horretan emandako ebazpenen aurka ezin izango da errekurtsorik aurkeztu, hargatik eragotzi gabe prozedura nagusian ematen diren ebazpenen aurka jar daitezkeen errekurtsuak.

3. Behin-behineko neurriek kalteak, edozein eratakoak, sor baditzakete, kalte horien aurrean erantzuteko besteko kauziora edo bermea eratzeko agindua eman dezake ebazpenak; orduan, behin-behineko neurriek ez dute ondoriorik izango, harik eta kauziora edo bermea eratuta egon arte.

Erregelamenduz ezarriko dira bermearen zenbatekoa, eratzeko modua eta itzultzeko baldintzak.

4. Kautelaz prozedura etetea erabakitzen denean, horrek ez dio eragingo, inola ere, interesdunek eskaintzak edo proposamenak aurkezteko ezarritako epeari.

5. Kontratazio-arloko errekurtsio berezia aurkeztu aurretik eskatu eta erabakitzen diren behin-behineko neurriek indarra galduko dute, errekurtsioa aurkezteko epean interesdunak errekurtsorik aurkeztu ez badu.

44. artikulua. *Prozedura hastea eta errekurtsioa aurkezteko epea.*

1. Lege honen 40. artikuluko 1. eta 2. paragrafoetan adierazitako egintzetakoren baten aurka errekurtsioa jartzeko asmoa daukatenean alde aurretik eman beharko dute horren berri, idatziz, errekurtsioaren xedea zein egintza izango den zehaztuta. Idazki hori kontratazio-organoaren aurrean aurkeztu beharko dute, hurrengo paragrafoan errekurtsioa jartzeko aurreikusitako epearen barruan.

2. Errekurtsio-prozedura idazki baten bidez hasiko da. Idazki hori, aurkaratutako egintzaren jakinarazpena 151. 4 artikuluan adierazitakoaren arabera igorri ondorengo hamabost egun balioduneko epean aurkeztu beharko da.

Edonola ere:

a) Errekurtsioa pleguen eta gainerako kontratu-agirien edukiaren aurka jartzen bada, horiek lege honetako 158. artikuluan adierazitakoaren arabera jaso edota lizitatzailerik edo hautagaien esku utzi eta biharamunean hasiko da kontaketa.

b) Errekurtsioa esleipen-prozeduran hartutako izapidetze-egintzen aurka edo publizitaterik gabeko prozedura negoziatua aplikatzearen ondoriozko egintza baten aurka jartzen bada, balizko arau-haustearen berri izan eta biharamunean hasiko da kontaketa.

c) Errekurtsioa lizitazio-iragarkiaren aurka jartzen bada, iragarkia argitaratu eta biharamunean hasiko da kontaketa.

3. Errekurtsioa jartzeko idazkia, nahitaez, kontratazio-organoaren erregistroan edo errekurtsioa ebazteko eskumena duen organoaren erregistroan aurkeztu beharko da.

4. Errekurtsioa jartzeko idazkian, honako alderdi hauek adierazi beharko dira: errekurtsioaren xedea zein egintza den, errekurtsioa jartzeko arrazoiak, errekurtsiogileak erabili nahi dituen frogabitartekoak, eta, hala badagokio, aurreko artikuluan aipatutakoen moduko zein neurri ezartzeko eskatzen den.

Idazki horrekin batera, honako hauek aurkeztu beharko dira:

a) Prozedurara agertutako alderdiaren ordezkariak egiaztatzen duen dokumentua, non eta organo berean ebazteko dagoen beste errekurtsorik bada. Kasu horretan, ziurtagiria eskatu ahal izango da, prozedurarekin batzeko.

b) Errekurtsogilearen legitimazioa frogatzen duen dokumentua (edo dokumentuak), legitimazioa herentziaz edo beste edozer tituluren bidez jaso duenean.

c) Aurkaratutako berariazko egintzaren kopia edo helarazpena, edota egintza jaso duen espedientearen aipamena, edo argitaratu den aldizkari ofizialarena edo kontratatzailearen profilarrena.

d) Errekurtsogilearen eskubidea oinarritzen duen dokumentua edo dokumentuak.

e) Artikulu honetako 1. paragrafoan ezarritakoa bete izanaren frogagiria.

Frogagiri hori gabe, ez zaio errekurtsorik aurkezteko idazkiari bide emango, baina, hala ere, ez aurkeztearen ondorioak zuzendu ahal izango ditu, hurrengo paragrafoan zehaztutakoari jarraiki.

5. Errekurtsorik idazkiak akatsak izanez gero, hiru egun balioduneko epea emango zaio interesdunari akatsa zuzentzeko edo aginduzko dokumentuak aurkezteko, eta adieraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela. Kasu horretan, espedientearen izapidetzea etenda geldituko da, eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42. artikuluko 5. paragrafoan aurreikusitako ondorioak sortuko ditu.

45. artikulua. *Errekurtsorik jartzearen ondorioak.*

Errekurtsorik jarritakoan, errekurritutako egintza esleipena bada, kontratazio-espedientearen izapideak eten egingo dira.

46. artikulua. *Prozedura izapidetzea.*

1. Kontratazio-arloko errekurtsorik bereziak izapidetzeko prozedura azaroaren 26ko 30/1992 Legearen xedapenetan adierazitakoa izango da, eta ondorengo paragrafoetan jasota dauden berezitasunak izango ditu.

2. Errekurtsogileak errekurtsorik jarritakoan, ebazteaz arduratuko den organoak egun horretan bertan emango dio horren berri kontratazio-organuari, eta errekurtsorik idazkiaren kopia igorriko dio. Halaber, kontratazio-espedientearen eskatuko dio izapidetu duen erakunde, organo edo zerbitzuari, eta azken horrek ondorengo bi egun balioduneko epean igorri beharko dio, dagokion txostenarekin batera. Aurkaratutako egintza sortu duen kontratazio-organoren aurrean jarri bada errekurtsorik, organo horrek ebazteaz arduratuko den organuari bidali beharko dio, errekurtsorik jaso ondorengo bi egun balioduneko epean, administrazio-espedientearekin eta aurreko lerrokadan aipatutako txostenarekin batera

3. Errekurtsorik jarri ondorengo bost egun balioduneko epean, ebazteko ardura duen organoak gainerako interesdunari emango die horren berri, eta bost egun balioduneko epea

emango die alegazioak aurkezteko; eta izapide horrekin batera, aldi berean, bost egun balioduneko epean, kautelazko neurrien gaineko erabakia hartuko du, errekurtsua jartzeko idazkian halakorik eskatu baldin bada edo 43. 2 artikuluko hirugarren lerrokadan aurreikusitako metaketa gertatu bada. Neurri horiek ezartzean, 43. artikuluan kontratazio-organoaren entzunaldiari buruz xedatutakoa aplikatuko da.

Aipatutako artikuluko 3. eta 4. paragrafoak ere aplikagarri izango dira.

Halaber, eta hala badagokio, epe horretan bertan erabakiko du aurreko artikuluan aurreikusitako etete automatikoari eutsiko dion edo ez. Etetea bertan behera uzteko berariazko ebazpenik ematen ez badu, eteteak indarrean jarraitzen duela ulertuko da.

Behin-behineko neurriak errekurtsua jarri ondoren eskatu badira, organo eskudunak aurreko lerrokadan aurreikusitako moduan hartuko du haien gaineko erabakia, prozedura nagusia eten gabe.

4. Errekurtsua ebazteko garrantzizkoak diren egitateak zuzenbidean onargarri den edozein frogabidez egiazta daitezke.

Errekurtsua ebazteaz arduratzen den organoak frogaldia hasi ahal izango du interesdunek hala eskatzen badiote, organo horrek berak interesdunek alegatutako egitateak egiazkotzat jotzen ez baditu, edota prozeduraren ezaugarriek hala eskatzen badute. Frogaldiak hamar egun balioduneko iraupena izango du, eta organoak egokitzat jotzen dituen froga guztiak egin ahal izango dira.

Errekurtsua ebazteko eskumena daukan organoak, ebazpen arrazoituaren bidez, errefusatu egin ditzake interesdunek proposatutako frogak, argi eta garbi desegokiak badira edo beharrezkoak ez badira.

Aldez aurretik jakinaraziko zaie interesdunei, behar besteko denborarekin, frogak egingo direla.

5. Errekurtsua ebazteko eskumena daukan organoak konfidentzialtasuna eta merkataritzako sekretua babesteko eskubidea bermatu beharko ditu beti kontratazio-espeditentean jasotako informazioari dagokionez; hala ere, ebazpena emateko orduan, aukera izango du informazio hori ezagutu eta kontuan hartzeko.

Organo horrek erabakiko du nola bermatuko dituen kontratazio-espeditentean jasotako informazioaren konfidentzialtasuna eta sekretua, gainerako interesdunen babes juridiko eraginkorrerako eta prozeduran defendatzeko eskubideari kalterik egin gabe.

47. artikulua. Ebazpena.

1. Interesdunen alegazioak jaso ondoren, edota alegazio horiek aurkezteko epea igaro ondoren, eta, hala badagokio, baita frogaldia ere, organo eskudunak hurrengo bost egun baliodunetan ebatzi beharko du errekurtsua; ondoren, interesdun guztiei jakinarazi beharko die ebazpena.

2. Ebazpenak osorik edo partez baietsi ahal izango ditu uziak, edota ezetsi, edo errekurtsua onartezina dela deklaratu; betiere, azaldu diren gaien inguruan erabaki arrazoituak eman beharko ditu.

Edonola ere, ebazpenak eskaerari erantzungo dio, eta, hala badagokio, esleipen-prozeduran onartutako legez kontrako erabakien deuseztapenaz erabakiko du; halaber, lizitazio-iragarkian, iragarki indikatiboan, pleguetan, kontratua arautzen duten baldintzetan edo lizitazioari edo esleipenari lotutako edozein agiritan diskriminazioa eragiten duten ezaugarri tekniko eta ekonomia- eta finantza-ezaugarriak kentzeaz ere erabakiko du, bai eta egintzen atzeraeraginaz ere, hala badagokio.

Ebazpenaren edukiaren ondorioz kontratazio-organoak kontratua beste lizitatzaille bati esleitu behar badio, hamar egun balioduneko epea emango zaio lizitatzaille horri, 151. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitakoa betetzeko.

3. Halaber, interesdunak hala eskatzen badu, eta bidezkoa bada, errekurtsua eragin duen lege-haustekak interesdunari sortutako kalte-galeren ordaina emateko betebeharra ezarri ahal izango zaio erakunde kontratatzaileari.

4. Ebazpenean, era berean, esleipen-egintzaren etenaldia bertan behera uzteko erabakia hartu beharko da, ebazpena emateko garaian egintzaren etenaldiak indarrean jarraitzen badu, baita gainerako kautelazko neurriak bertan behera uztekoa ere, eta kautelazko neurrien eraginkortasuna bermatzeko eraturako bermeak itzultzekoa ere bai, hala badagokio.

5. Organo eskudunaren iritzian errekurtsogileak errekurtsua jartzean edo kautelazko neurriak eskatzean ausarkeriaz edo fede txarrez jokatu badu, errekurtsogileari isun bat ezartzea erabaki ahal izango du.

Isun horren zenbatekoa 1. 000 eta 15. 000 euro bitartekoa izango da. Isunaren zenbatekoa hautemandako fede txararren eta kontratazio-organoari zein gainerako lizitatzaillei eragindako kaltearen arabera finkatuko da.

Paragrafo honetan adierazitako zenbatekoak bi urtean behin eguneratuko dira, ministro-aginduz, Estatistikako Erakunde Nazionalak kalkulaturako kontsumoko prezioen indizea aplikatuta.

48. artikulua. *Kalte-ordainak zehaztea*

1. Aurreko artikuluko 3. paragrafoan aipaturako kalte-ordaina ezartzea erabakiz gero, haren zenbatekoa zehazteko orduan, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 141. artikuluko 2. eta 3. paragrafoetan xedaturako irizpideak hartuko dira kontuan, ahal den neurrian.

2. Kalte-ordainaren bidez, eskaintza prestatzeak edo kontratazio-prozeduran parte hartzeak eragindako gastuak ordaindu beharko zaizkio erreklamatzailleari, gutxienez.

49. artikulua. *Ebazpenaren ondorioak.*

1. Prozedura honetan emandako ebazpenaren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtoa bakarrik jarri ahal izango da, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10. artikuluko 1. paragrafoko k) eta l) hizkietan eta 11. artikuluko 1. paragrafoko f) hizkian xedatutakoaren arabera.

Ez ebazpena, ez 41. artikuluan araututako organoek emandako egintzak, ezin izango dira ofizioz berrikusi –ofiziozko berrikuspena Lege honen 34. artikuluan eta azaroaren 26ko 30/1992 Legeko VII. tituluko I. kapituluan dago araututa–. Era berean, horietako bakoitza atxikita dagoen administrazioaren barne kontrolerako organoen fiskalizazioaren mende ere ez dira egongo.

2. Aurreko paragrafoan adierazitakoak ez du eragozten ebazpena zuzenean betearazlea izatea, eta, hala badagokio, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 97. artikuluan xedatutakoa aplikatu beharko da.

50. artikulua. *Arbitrajea.*

Herri-administrazio ez diren sektore publikoko ente, organismo eta erakundeek arbitrajera jo dezakete egiten dituzten kontratuen eraginari, betetzeari eta azkentzeari buruz sor daitezkeen ezadostasunak konpontzeko, Arbitrajeari buruzko abenduaren 23ko 60/2003 Legearen xedapenen arabera.